GETARIA UDALA | Getaria Herria itsaso

Espediente zbk.: 2026IKIM0004

BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA “BALENTZIAGA KALEKO IGOGAILUAREN INSTALAZIO PROIEKTUA” IDAZKETA ZERBITZUA ESLEITZEKO

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS PARA ADJUDICAR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO PARA LA REDACCIÓN DEL “PROYECTO DE INSTALACIÓN DEL ASCENSOR EN LA CALLE BALENTZIAGA”

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen zuzeneko xedea da BALENTZIAGA KALEAN IGOGAILU BAT INSTALATZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO ZERBITZUAK ematea, plegu honen eta kontratu honen baldintza ekonomiko administratiboak arautzen dituen pleguaren arabera. Proiektuaren atalak 3. Puntuan daude azalduta.

1.- OBJETO DE CONTRATO

El objeto directo de este contrato es la prestación de servicios con arreglo a lo dispuesto en el presente Pliego y en el Pliego de Condiciones Económico Administrativas de este contrato, para la REDACCIÓN DEL PROYECTO DE INSTALACIÓN DE ASCENSOR EN CALLE BALENTZIAGA. El contenido del proyecto se define en el punto 3.

2.- EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA

Proiektuak Herrerieta eta Balentziaga kaleen arteko kotek sortutako irisgarritasun-arazoak konpondu beharko ditu, Euskaltxeta eraikinaren ondoan lotura bertikal bat sortuz. Aurreikusita dago eraikin hori epe ertainean eraistea eta ondoren zuzkidura-etxebizitza gisa berreraikitzea.

2.- DESCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS A REALIZAR

El proyecto deberá resolver los problemas de accesibilidad entre las cotas de las calles Herrerieta y Balentziaga creando una conexión vertical junto al edificio Euskaltxeta. Está prevista la demolición del mencionado edificio a medio plazo y la posterior reedificación como viviendas

Getariako Udala - Gudarien enparantza 1 - (+34) 943 896 024 - udala@getaria.eus getaria.eus

dotacionales.

Planteatzen den proposamenak lotura bermatu beharko du igogailu bat instalatuta eta, aldi berean, irisgarritasunari buruzko indarreko araudiak bete beharko dira.

Se deberá plantear una solución que permita la conexión mediante la instalación de un ascensor debiendo cumplir con las Normativas Vigentes en cuanto a criterios de Accesibilidad.

Jarduketa-puntutik gertuko eremua aztertu eta egokitu beharko da, igogailua eremuan integratuta gera dadin eta eskainitako konponbidea multzoarekin koherentea izan dadin.

Se deberá estudiar y adecuar el entorno más próximo al punto de actuación, de manera que el ascensor quede integrado en la zona y que se cree una solución coherente en el conjunto.

Arreta berezia jarri beharko da Euskaltxeta eraikina berreraikitzeak etorkizunean izan ditzakeen eraginetan. Aurkeztutako konponbideak eraikina eraisteko eta, ondoren, berreraikitzea ahalbidetu beharko du, 6 metro luze inguruko pasabide zati desmuntagarriaren bat edo antzeko irtenbideren bat proposatuta.

Se deberá prestar especial atención a las futuras afecciones provocadas por la reedificación del edificio Euskaltxeta. La solución presentada deberá posibilitar la demolición y posterior reedificación mediante la incorporación de un tramo de pasarela desmontable de aproximadamente 6 metros de largo u otra solución similar.

Proposatutako konponbideko azpiegituretarako zerbitzuen harguneak aztertu eta ebatzi beharko dira. Azpiegituren azterlana eta definizioa jasangarritasunaren aldeko eta energia aurrezteko irizpideen arabera egin beharko da.

Habrá que estudiar y resolver las acometidas necesarias para los diferentes servicios de infraestructuras que intervengan en la solución a adoptar. Todo el estudio y definición de las infraestructuras deberá atender a criterios de sostenibilidad y ahorro energético.

Lan honetan, BALENTZIAGA KALEAN

Los trabajos consistirán en plasmar a

IGOGAILUA JARTZEKO proiektua gauzatuko da, erantsitako aurreproiektuaren 1.1 proposamenetik abiatuta.	nivel de Proyecto de Ejecución la INSTALACION DE ASCENSOR EN CALLE BALENTZIAGA partiendo de la propuesta 1.1 del anteproyecto adjuntado.
Horretarako, oinarrizko puntu hauek hartu beharko dira kontuan:	Para ello se deberán tener en cuenta los siguientes puntos básicos:
- Beharrezkoak diren datu topografikoak kontrastatu beharko dira, eta kostua eskaintze diren ordainsarietan sartu.	- Se deberán contrastar aquellos datos topográficos que sean necesarios, cuyo coste estará incluido en los honorarios ofertados.
- Egiturazko kalkuluetarako eta inguruko eragin posibleak aztertzeko beharrezko azterlan geoteknikoa egin beharko da, eta kostua eskaintzen diren ordainsarietan sartu.	- Se deberá realizar el estudio geotécnico necesario para los cálculos estructurales, y para estudiar las posibles afecciones al entorno, y cuyo coste estará incluido en los honorarios ofertados.
- Beharrezkoak diren argiztapen-azterlanak egin beharko dira esku-hartzearen eremu nagusian eta jarduketa-eremutik gertuen dauden sarbideen bigarren mailako eremuan	- Se deberán realizar los estudios de iluminación que sean necesario en el entorno principal de actuación y en el entorno secundario desde los accesos más próximos a la zona de actuación.
- Berrurbanizazio-lanak ingurunean integratzea aurreikusi beharko du proiektuak.	- El proyecto deberá contemplar la integración de esta obra de reurbanización en el entorno.
- Ukitutako eremua berrurbanizatu beharko da, irisgarritasun-, mantentze- eta kontserbazio-irizpideak kontuan	- Reurbanización del ámbito afectado, teniendo en cuenta criterios de accesibilidad, mantenimiento y

hartuz.

- Planteatutako antolamendua eta horren integrazioa gertueneko eremuan.

- Inguruko zerbitzu eta azpiegitura guztiak ebatzi beharko dira, eta etorkizunerako aurreikuspenak egin.

- Inguruan dauden eremu berdeak aztertuko dira, eta obren eraginaren araberako konponbideak ezarriko.

Indarrean dagoen hirigintza-araudiarekin bat etorri beharko du proiektuak, eta aplikatu beharreko legezko beste xedapenak bete.

conservación del mismo.

- Ordenación planteada y su integración e influencia con el entorno más próximo

- Resolución de todos los servicios e infraestructuras que discurren por la zona y que puedan ser afectados.

- Estudio de la jardinería existente y adopción de soluciones en función de la afección que se genere.

El proyecto deberá ajustarse a la normativa urbanística vigente y de la cumplimentación de lo dispuesto en otras disposiciones legales que resulten de aplicación.

3.- LANEN BILAKAERA ETA EDUKIA.

PROIEKTUAREN IDAZKETA

Fase hauetan banatuta egingo da lana:

3.1) AZTERKETA FASEA.

Fase honetan, proiektua idazteko behar den datu guztia hartuko da, eta aurreproiektuaren 1.1 proposamena aztertuko da.

Lortutako datu guztiekin, aukeratutako proposamena egiaztatuko duen dokumentu bat egingo da, edo,

3.º- DESARROLLO Y CONTENIDO DEL TRABAJO

REDACCIÓN DEL PROYECTO

El trabajo se desarrollará en estas fases:

3.1) FASE DE ANALISIS.

En esta fase se realizará toda la toma de datos necesaria para la Redacción del Proyecto y se estudiará la propuesta 1.1 del anteproyecto.

Con todos los datos obtenidos, se realizará un documento que verifique la propuesta elegida o si el equipo redactor

erredakzio-taldeak beharrezkotzat jotzen badu, garatu beharreko irtenbide alternatibo bat aurkeztuko da.	lo considerase necesario, se presentaría una solución alternativa a desarrollar.
3.2) EGIKARITZE PROIEKTUAREN FASEA.	3.2) FASE DE PROYECTO DE EJECUCIÓN
Behin dagokion konponbidea egiaztatuta, lanak egiteko epea hasiko da, eta aukeratutako konponbidea zehaztu beharko da, lanak egiteko proiektuaren bidez.	Una vez verificada la idoneidad de la solución elegida, se reanudará la cuenta en el plazo de ejecución de los trabajos, pasando a la definición de la misma hasta llegar al Proyecto de Ejecución
Hona hemen proiektua osatu beharko duten gutxieneko dokumentuak:	A continuación, se exponen los diferentes apartados que deberá contener como mínimo el Proyecto:
a) Memoria eta eranskinak	a) Memoria y Anejos
b) Planoak	b) Planos
c) Baldintzak teknikoen plegua	c) Pliego de Prescripciones Técnicas
d) Aurrekontua	d) Presupuestos
Oro har, salbuespenak salbuespen, gutxieneko atal hauek osatu beharko dute dokumentu bakoitza:	Con carácter general, y sin perjuicio de las excepciones que puedan existir, cada uno de estos documentos incluirá como mínimo los siguientes apartados:
a) Memoria eta eranskinak	**a) Memoria y Anejos**
<u>Memoria:</u>	<u>Memoria:</u>
- Aurrekariak eta proiektuaren helburua.	- Antecedentes y objetos del proyecto.

- Aurreko azterlanak.	- Estudios anteriores.
- Aplikatu beharreko araudia.	- Normativa de aplicación.
- Konponbidearen justifikazioa.	- Justificación de la solución.
- Lanen deskribapena.	- Descripción de las obras.
- Lanen exekuzioaren deskribapena, lanak egiteko modua aztertu eta deskribatua	- Descripción de la ejecución de las obras, donde se analizará y describirá el modo de realización de las mismas.
- Indarrean dagoen hirigintzako araudira egokitzeko eta aplikatu beharreko legezko xedapenak betetzeko modua.	- Adecuación a la normativa urbanística vigente y de la cumplimentación de los dispuesto en otras disposiciones legales que resulten aplicables.
- Aurrekontua.	- Presupuesto.
- Lanak egiteko epea.	- Plazo de ejecución.
- Proiektua osatzen duten dokumentuen zerrenda.	- Documentos de que consta el Proyecto.
<u>Eranskinak:</u>	<u>Anejos:</u>
- Topografikoa	- Topográfico
- Azterketa geoteknikoa	- Estudio Geotécnico
- Egiturazko kalkuluak.	- Cálculos estructurales
- Instalazioak	- Instalaciones
- Ukituko diren zerbitzuak	- Servicios afectados
- Argiteria publikoaren argiztapenaren	- Estudio de iluminación del alumbrado

azterketa

- Eraikuntza- eta eraisketa-lanetako hondakinen kudeaketaren azterketa.

- Segurtasun- eta osasun-azterketa.

- Kalitatea kontrolatzeko programa.

b) Planoak: Lanak egiteko proiektuari dagozkionak eta, betiere, proiektua ezin hobeto zehazteko eta idatzi duenaz bestelako teknikari batek ulertzeko ezinbestekoak direnak.

c) Baldintza teknikoen plegua

- Materialen ezaugarriak

- Obraren exekuzioa

- Lanen neurketa eta ordainketa

d) Aurrekontua

- I. Kapitulua Neurketak

- II. Kapitulua Prezioen taulak

- III. Kapitulua Aurrekontua

Lanak egiteko proiektua idatzitakoan, ale bat eman beharko zaio Udalari, behin betiko dokumentua prestatu aurretik, azter dezan.

publico

- Estudio de Gestión de residuos de construcción y demolición.

- Estudio de Seguridad y Salud.

- Programa de Control de Calidad.

b) Planos: Los correspondientes a un proyecto de ejecución y en todo caso los necesarios para la perfecta definición del proyecto y su comprensión por técnico diferente al redactor del mismo.

c) Pliego de Prescripciones Técnicas

- Características de los materiales

- Ejecución de la obra

- Medición y abono de las obras

d) Presupuesto

- Capitulo I Mediciones

- Capitulo II Cuadros de Precios

- Capitulo III Presupuesto

Una vez redactado el Proyecto de Ejecución, se entregará al Ayuntamiento un ejemplar, con carácter previo a la elaboración del documento definitivo, para su revisión.

Udaleko zerbitzu teknikoek planteatzen dituzten aldaketa, zabalpen eta erreformak kontuan hartuta prestatu beharko da behin betiko exekuzio-proiektua.

Atendiendo a las modificaciones, ampliaciones o reformas que se planteen desde los Servicios Técnicos Municipales, se elaborará el documento definitivo del Proyecto de Ejecución.

3.3). – LANEN AURKEZPENA

3.3). – PRESENTACION DE LOS TRABAJOS

Dokumentu guztiak txukun aurkeztu beharko dira, labur, idazteko eta marrazteko paperik onenean, eta, ahal dela, ez da aurkeztuko neurriz kanpoko planorik edo esku artean erabiltzeko zaila denik.

Todos los documentos se presentarán en forma ordenada y concisa sobre papeles para escritura y dibujo de la mejor calidad, evitándose planos de tamaño desproporcionado o de difícil manejo.

Gainera, planoak AUTOCAD formatuan aurkeztu beharko dira, eta aurrekontua, PRESTO edo BC3 formatu aldarrian.

Los planos se entregarán además en formato AUTOCAD y el presupuesto en formato PRESTO o BC3 intercambiable.

Era berean, proiektuen edukia herritarrei behar bezala ezagutarazteko, esleipendunak hiru dimentsioko infografia batzuk (gutxienez 4) eta proiektatzen dituen lanen deskribapen informatibo eta laburtua aurkeztu beharko ditu. Proposamena aztertzeko fasean zein lanak egiteko proiektuaren fasean eskatu ahalko zaio dokumentazio hori. Herritarrek parte hartzeko prozesuren bat irekitzekotan, kontratatzen diren lanak egiteko epeak ez du aurrera egingo, eta Udalak

Igualmente, para la adecuada comunicación a los ciudadanos del contenido de los proyectos, el adjudicatorio deberá también, en todo caso, presentar varias infografías en 3D (4 por lo menos), y una descripción informativa y resumida de la obra proyectada. Dicha documentación podrá ser requerida al adjudicatario tanto durante la fase de análisis de la propuesta, como durante la fase de proyecto de ejecución. En caso de abrir un proceso de participación ciudadana,

esleipendunari behin betiko konponbideak jakinarazten dizkionean hasiko da berriro.

el plazo de ejecución de los trabajos contratados se detendrá, retomándose una vez se comunique al adjudicatario desde el ayuntamiento las soluciones definitivas adoptadas

4. – PROIEKTUA IDAZTEKO TALDEA.

4.ª – EQUIPO REDACTOR.

Gutxienez honako hauek osatu beharko dute proiektua idazten duen taldea:

- Proiektuaren egileak edo egileek goi-mailako teknikariak izan beharko dira, horrelako lanak egiteko gaituak. (goi-mailako arkitektoa, bide, ubide eta portuetako ingeniaria (BUPI), edo industria ingeniaria).

El equipo redactor deberá estar compuesto como mínimo por:

- La o las persona/s autora/a del Proyecto, Técnico Superior competente para este tipo de trabajos. (Arquitecto Superior, Ingeniero de Caminos, Canales y Puertos (ICCP) o Ingeniero Industrial).

Gutxienez bost urteko esperientzia izan beharko dute antzeko proiektuak idazten.

Deberá tener como mínimo 5 años de experiencia en la redacción de proyectos similares.

Tituluak aipatutakoak izan ahalko dira edo Goi Mailako Hezkuntzako Prestakuntzaren Espainiako Esparruko baliokideak, eta dagokion unibertsitateko agintaritzak ziurtatua egon beharko dute.

Las titulaciones podrán ser las mencionadas o sus equivalentes del Marco español de Cualificaciones para la Educación Superior, y estarán certificadas por la autoridad universitaria correspondiente.

Kontratuaren arduradun teknikoaren onespenik gabe esleipendun gertatzen den aholkularitza-enpresak ezin ditu kanpoan utzi proposatzen duen taldeko

La empresa consultora que resulte adjudicataria no podrá prescindir de ninguno de los integrantes del equipo redactor propuesto, ni sustituirlo por otro

kideak, ezta haien ordez beste batzuk izendatu ere.

sin la aprobación del responsable Técnico del Contrato.

Laguntzaileak proiektuaren egilearen enpresa berekoak edo beste batekoak izan ahalko dira. Beste enpresa batekoak badira, laguntza emateko konpromisoa hartzekoa adierazpena aurkeztu beharko dute.

Lo/as colaboradores/as podrán pertenecer a la misma empresa que la persona autora del proyecto o no, en cuyo caso deberán presentar su declaración de compromiso de colaboración.

Eskaintzan aurkeztutako taldeak kontratuak irauten duen denbora guztian parte hartu beharko du.

La participación del equipo presentado en la oferta deberá de mantenerse a lo largo de todo el contrato.

Proiektua idazteko adskribatu beharreko **gutxieneko** lantaldearen osaera aurkeztu beharko da, curriculum vitaea eta antzeko lanetan duten esperientzia eta prestakuntza zehaztuta. Era berean, berariaz, kide bakoitzak bete beharreko funtzioak eta aurreikusitako dedikazioa adieraziko dira. Lantaldearen egitura eta osaera konpromiso formaltzat hartuko da, esleipendun gertatuz gero.

Se presentará la composición del equipo humano **mínimo exigido** y que se va a adscribir a la redacción del proyecto, con detalle relativo a su curriculum vitae, experiencia y cualificación en trabajos similares. Así mismo, se indicarán expresamente las funciones a realizar y la dedicación prevista. La estructura y composición del equipo de trabajo, se entenderá como un compromiso formal, en caso de resultar adjudicatarios.

5. – PROIEKTUA IDAZTEKO EPEA

5.ª –PLAZOS DE REDACCIÓN

Esleipenaren ondoren **HILABETE BAT,** lehen azterketak egin eta finkatutako irizpideak zehazteko. Ondoren, proposamena onartuta dagoela jakinarazten denetik **HIRU HILABETE** epea ezartzen da egikaritze-proiektua

Tras la Adjudicación **UN MES** para los primeros estudios y concreción de los criterios establecidos. Posteriormente, desde la comunicación de la aprobación de la propuesta, **TRES MESES** para redactar el proyecto de ejecución y

eta haren azterketa tekniko osagarriak idazteko.

estudios técnicos complementarios.

6.- INGURUMENAREN IKUSPEGIA.

6.ª-PERSPECTIVA MEDIOAMBIENTAL

A) Proiektua gauzatzerakoan, laguntza teknikoak berak ingurumenean duen eragina txikitu beharko da:

A) En la ejecución del proyecto se deberá minimizar el impacto medioambiental de la propia asistencia técnica:

- Ahalik eta dokumentu gutxien inprimatuko da.

- Reducción del número de impresiones ajustándolas al máximo.

- Paper birziklatua erabiliko da.

- Utilización de papel reciclado.

- Behar-beharrezkoa den materiala bakarrik erosiko da, ahalik eta soberakin eta hondakin gutxien sortzeko.

- Compra de material en las cantidades estrictamente necesarias para minimizar los excedentes y reducir la generación de residuos.

B) Proiektua idazterakoan, ingurumen-ikuspegia kontuan hartu beharko da, eta neurri hauek edo antzekoak hartu:

B) En la redacción del proyecto se deberá tener en cuenta la perspectiva medioambiental, incluyendo medidas tales como:

- Diseinu estandarreko materialak erabiliko dira, hainbat urtetan eskuragarri daudenak.

- El uso de materiales con diseños estándares y disponibilidad durante varios años.

- Lehengai eta materialak ahal bezainbat berrerabiliko dira, hala nola eraisketa- eta indusketa-lanetako hondakinak eta azaleko geruza begetala, aplikatu beharreko araudia eta bete beharreko kalitate estandarrak betetzen badituzte

- La máxima reutilización de materias primas y materiales como por ejemplo los residuos de demoliciones, excavaciones o la capa vegetal superficial, siempre que se cumplan tanto la normativa aplicable como los

betiere.

estándares de calidad requeridos.

7.- LIZITAZIORAKO INFORMAZIOA

7.ª-INFORMACIÓN PARA LICITACIÓN

Lehen aipatutako dokumentazioa eranskin bidez emango da:

Se facilitará mediante anexos la documentación citada anteriormente:

- I. eranskina: alternatibak aztertzeko aurreproiektua.1.1 aukera bakarrik hartu beharko da kontuan.

Anexo I: Anteproyecto con estudio de alternativas. Se deberá tener en cuenta únicamente la alternativa 1.1.

- II. eranskina: Balentziaga plan bereziko ordenamendu planoak (G.00 lursaila), eraikinaren eraispen eta berreraikitze afekzioak neurtzeko.

-Anexo II: Planos de ordenación del plan especial Balentziaga (parcela G.00) para la estimación de afecciones de la demolición y reconstrucción del edificio.

Planimetria orokorra ere emango da, UTM ETRS 89 koordenatuetan eta dwg formatuan.

Se facilitará también planimetría general en coordenadas UTM ETRS 89 y formato dwg.

Sinatzailea:	Udal Arkitektoa Iñigo Paniego de la Cuesta
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: https://munigex.net/r/0/39/AAAABHMA1.Eo1G	